

# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 717

*8/2024 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta horiek emateko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 35/2011 Dekretua indargabetzen duena.*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Batxilergoko irakaskuntzen erregulazioa ezartzen du, ikasleei funtzio sozialak garatzeko eta bizitza aktiboan arduraz eta gaitasunez txertatzeko aukera emango dieten prestakuntza, adimen-heldutasuna eta giza heldutasuna, ezagutzak eta trebetasunak emateko.

Ikastetxeek beren hezkuntza eta curriculum proiektuak egiteko oinarrizko arau-oinarri dira honako hauek: 243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen, eta 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Batxilergoa ikasgai komun bidez prestakuntza orokorrean oinarrizko unitate bat mantentzen duen hezkuntza-etapa bezala egituratzen da, modalitateak aukeratuz. Horrela, aniztasun-maila bat ahalbidetzen du. Era berean, lan-munduan sartzeko aukera ematen du, eta ondorengo ikasketetarako berariazko prestakuntza ematen du, unibertsitateko edo arte-irakaskuntzako graduak, lanbide-heziketako goi-mailako zikloak edo arte-irakaskuntzakoak izan.

Batxilergoko ikasketak amaitzeak berekin dakar ikasleek goi-mailako ikasketak hasi aurreko prestakuntza amaitzea eta batxilergoko titulua lortzea. Hori dela eta, Batxilergoko Sari Bereziak deitu izan dira, ibilbide akademiko bikaina lortu duten ikasleen ahalegina eta dedikazioa aitortzeko eta sustatzeko. Bikaintasunaren bilaketa eta talentuaren identifikazioa, gizakiaren esparru guztietan, unibertsitate aurreko hezkuntzatik hasi behar da.

Batxilergoko Sari Nazionalak arautzen dituen maiatzaren 4ko ECD/2018 Aginduak xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek Batxilergoko Sari Bereziak deitu eta eman ahal izango dituzte, bakoitzak bere eskumen-eremuan. Ondorio horietarako, hezkuntza-administrazioek dagokien deialdian arautuko dituzte horiek emateko probei buruzko alderdi guztiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek Euskal Autonomia Erkidegoan emateko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 35/2011 Dekretua indarrean jarri zenetik, urteko deialdien erregulazioa ordeztu zuen denboraz kanpoko araudi bat ezarri zen.

Aipatu bezala, orain arte, Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 35/2011 Dekretuak egun jasotzen duen araudiaren esparruan planteatu dira deialdiak, otsailaren 19ko 166/2013 Dekretuak eta azaroaren 29ko 145/2022 Dekretuak egindako aldaketekin.

Horri dagokionez, araua onartu zenetik erkidegoko araudian egindako aldaketa ugariak eta hezkuntzaren arloko antolamendu-egitura berriak arau autonomikoaren aplikazioan agerian geratu diren akatsak konpontzeko beharra dakarte, arau horrek ez baitu asetzen EONALTBren 51.1 a) artikulua eta DLOren 17.3 a) artikulua eskatutako laguntzaren edo dirulaguntzaren xedea zehatz definitzeko legeko eskakizuna.

2024ko otsailaren 9a, ostirala

Era berean, egokitzat jotzen da gai hori arautuko duen Agindu berri bat idaztea, egungo errealitatera egokitzeko. Horrela, araudiak Batxilergoko curriculumaren egitura berriari erantzungo dio, baita dirulaguntzen arloko eta prozedura-arloko araudiari ere.

Dekretu hau egiteko, kontsulta egin zaie sektoreko erakunde adierazgarrienei. Nahitaezko txosten guztiak eta Emakunderen txostena ere jaso dira, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusitako baldintzetan.

Ondorioz, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau:

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Indargabetu egiten da 35/2011 Dekretua, martxoaren 15ekoa, Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituena eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituena, bai eta dekretu hori aldatzeko ondorengo dekretuak ere:

- 166/2013 Dekretua, otsailaren 19koa, Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- 145/2022 Dekretua, azaroaren 29koa, Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen Dekretua bigarrenaz aldatzen duena.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrrik gabe geratzen dira Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 35/2011 Dekretuaren babesean emandako egintzak.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 30ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.